


Inoiz euskaldunduko ote da gure unibertsitatea?

# Belgikako Gent unibertsitatearen eredia



Euskal Herriko Unibertsitateetan (UEU salbu, berriro ere esan beharko) erdara da nagusi. Eta erdarak izan dira hezkuntza-bide nagusia eta bakarra betidanik Euskal Herrian izan diren Unibertsitate mota eta atal guztietan. Hots, gure Unibertsitatea inoiz euskaldunduko ote da? Ez al da amets hutsa? Gertatu ote da inon horrelako aldakuntzarik?

Horixe da gaurko artikulua honetan, ta ondoko egunotan jarraituko zaizkion beste batzutan, argitzen saiatuko garena, Leuven, Helsinki, eta abar.

## Flamenkera baserritarren dialektoa, unibertsitatean frantsesez

Belgikako Flandreetan orain dela ehun urte, flamenkera baserritarren dialekto multzoa baizik ez zenean, arazo bera ezagutu zuten flandretar abertzaleek: tresna bakarra frantsesa zen. Gaur, aldiz, Flandreetako Unibertsitateetan, nederlandera dute irakats-mintzairatzat. Nola jokatu zuten?

Flandretarren egoera eta gurea erabat berdina ez izanik ere, hango prozesua ezagutzeak alderdi interesgarri asko du. Orain dela ehun urte, eta 1898-ra arte, nahiz Belgikan gehien-goia flandretarra izan, frantsesa zen hizkuntza ofizial bakarra.

1883-z geroztik bazegoen, egia da, eta eskoletako irakasuntzari dagokionez, legeen letran bederen, halako esku zabala edo: zilegi zen, labur esanda, flamenkera erabiltzea. Indar handia zuen Elizak Flandreetan, nolahi ere, berak kontrolatzen zituen eskola libroen bidez. Eta horregatik praktikan, baina 1883-ren ondoren ere (gogoan har dezagun binomio famatu hura: Holanda protestantea vs. Flandre katolikoak), flandretar mugimendua orain dela ehun bat urte jaio zenean, bai administrazioa bai irakasuntza frantsesez egiten ziren Belgikako bazter guztietan.

Flandreetako herria, bestalde, kulturaz eta ekonomiaz oso atzeratua, ahula zen bere nortasunaz arduratzeko.

Zer esanik ez, Flandreetako burgesia frantsesurik zegoen erabat; Estatuaren aparato guztia bezala.

1900 inguruan hauxe zen Unibertsitatearen egoera hizkuntzen erabilpenari dagokionez:

Wallonia: **Liège**-koa, frantsesez.

Flandreak: **Gent** (fr. Gand), frantsesez. **Leuven** (fr. Louvain), Elizarena, frantsesez.

Bruselaldea: **Brusel**-go U.L.B. (Université Libre de Bruxelles), frantsesez.

(Bidenabar ohar bat egiteko: geografiaren aldetik begiraturik, Brusel Flandreetan dago; eta jatorriz flamenkeraz mintzo da. Hizkuntza-muga Waterloo dago, hiriburutik 18 km. Hegoalderantz).

Gent-eko Unibertsitatea erabat flandretartzea hartu zuten helburu nagusizat garai hartako abertzaleek. Jakina, helburu hori Ackers-ek 1889-an lehenengo aldiz kalera zueanean, halako utopi kutsua aurkitu zioten gehienek: «Flandreetako Unibertsitatea flamenkera hutsez? Zein flamenkera motaz gainera? Tira, tira!».

Egia esan, horrelako harrigarrikerik ez zegoen asmo horretan: Holandako Unibertsitateak nederlandera ari ziren; eta nederlandera hori flamenkera multzoen «Batua» baizik ez zen. Baina bertako eskuindarrek, guztiz ultra-va-



Flandetar Unibertsitatearen aita. artxiboa

lenciarren eta ultra-navarristen anaia bizkiak, ez zuten «protestante» eta «hereje» haien hizkera onartu nahi. Han ere, herriaren kontra egiteko probintzikeriaren ikurra altxa zuten eskuindarrek. Alferrik, halere.

### «Une université flamande? Jamais!»

Baina flandretar herriaren presioa gora zihoan. Eta 1906-ko Abuztuan Antwerpen-en ospatu zen 29. Flandretar Batzarrean, Lodewijk De Raet bruseldar abertzalea nagusitu zen: «Zer eskatzen dugun guk? Flamenkera Flandreetan, dinamarkerak Dinamarkan betetzen dituen erabilpen-alar berberak betetzea». Besteak beste, hortaz, «nederlandera erabiliko da soilki Gent-eko Unibertsitatean».

Elizaren erantzuna ez zen luzatu: urte berean, 1906-an, Agiri sonatu bat («Instructions aux.....») eman zuten Belgikako apezpikuek; eta Unibertsitatean irakaskuntza nederlandera eramateko projektua salatu zuten. Eta Mercier kardinalak azken hitza bota zuen: «Une Université flamande? Jamais!».

«Gure herrian zientziaren eta ekonomia munduak frantsesez ibiliko

direno, esklabo izango da Flandre», zion De Raet-ek. Baina apezpikuen eta kardinalaren atzean, eskuz esku, hauetxek agertu ziren: merkatalgo eta industri gizonak, lurralde jabeak, eta nolana hiko jaun eta jauntxoak. Sozialistak ere uzkur haseran, eta nozitzen ari zen borrokatik at (C. Huysmans-ek bere eragina ekarri arte).

1911-an halako «erdibide» horietako bat asmatu zuen Bruselgo gobernuak: Gent-eko Unibertsitatea bere hartan utzi, eta frantsesez beraz; eta Antwerpen-en (esp. Amberes) berri bat eraikitzea, eta hau nederlandera.

Flandretar abertzaleek uko borobil batez erantzun zuten: Gent nederlandera, ala ezer ez. Bi mila flandretar irakaslek sinatu zuten Eskabide berezi bat alde horretatik; eta ikasleek ugartu egin zituzten beren biltzarreak eta manifestazioak. «Alliance Française» frantximentaren aurrean, «Algemeen Nederlands Verbond» elkarte paratu zuten; eta, nahiz holandarrak hotz agertu, Belgika utzi, eta Holandara pasatzeko mugimendu separatista bat sortu zen.

Tentsioa gora zihoan; eta Elizaren jokabidea dugu horren froga garbia eta segurua: Leuven-go (esp. Lovaina) bere Unibertsitatean ere, zenbait alorretan hasteko, irakaskuntza nederlandera eman ahal izateko, «aukeran» utzi zuten.

1914-ko gerla hasi zen orduan. Bruselaz eta Belgikaz nardaturik, flandretar abertzale batzuk aleman okupatzaileengan jarri zituzten beren begiak. Eta hauek enbidoa onartu. Eta alemanek Flandreetako herria irabazteko asmotan, Gent-eko Unibertsitatea nederlandera zabaltzeko dekretua eman zuten. Eta Von Bissing gobernariaren zaintzapean, horrelaxe egin zen: Gent-eko lehenengo flandretar Unibertsitatea... Berlin-i esker! Arazoa ez zen txantxetako: 1916-ko Urriaren 24-eko kurtso-irekiera hartan, 35 irakle eta 417 ikasle egon baitziren.

Are gehiago, eta bide beretik, eta beti alemanen baimenaz, 1917-ko Abenduaren 22-an abertzale germanofiloek «Flandre Askatua» proklamatu zuten.

Ez ziren flandretar guztiak joko germanofilo horretan erori (eta hau Hitler baino lehenago, beraz; nahiz gero flandretar abertzaleei «nazi» izena leporatu bazaie ere); baina zauri haiek ez ziren erraz hetsiko. Batetik Belgikatik irteteko prest, bestetik Holandara biltzeko gertu; eta, gainera,

okupatzaileekin irribarrez... Non zen flandretarren belgikar abertzaletasuna? Inon ez, jakina. Baina flandretar soldaduak milaka hil ziren frentean, ulertzen ez zuten hizkuntza batez ofizialek agintzen zituztelarik.

Eta gerla bukatzean, Gent-eko Unibertsitatean nederlandera pikutara, eta frantsesez berriro! Tout était rentré dans l'ordre!

Galda han zegoen, noski. Eta 1923-an Brusel-ek egoera hura «normalizatu» nahirik, Nolf-Plana plaza-ratu zuen: Gent-eko Unibertsitatean bi sail edo bi adar egingo ziren. Flandretarrea bi heren emango ziren nederlanderaz, eta heren bat frantsesez; eta frantsesean, alderantziz. Teknika-gaiak, dena dela, honetan eta hartan frantsesez.

Hots, hauxe zen De Raet-en bidetik abertzaleek entzun ere nahi ez zutena: dena nahasian. Eta gainera teknika eta ekonomia, frantsesez; eta nekazaritza-arazoak eta letrak, nederlanderaz. Beste sailketa diglosiko bat, hitz batez.

#### 46 urtetako borrokaren ondoren partida irabazi

Flandretar ikasleek bat egin zuten; eta 26 baizik ez ziren «flandretar» sailean matrikulatu. Beste guztiak frantses sailean. Berriro ere, beraz: edo dena nederlanderaz, eta bat ere ez.

Boikotak luzaz iraun zuen. Bost urte beranduago, 1928/1929 ikasturtean, oraindik ere 190 ikasle baizik ez zegoen flamenkerazko sailean; frantse-sean, aldiz, 1.460 zeudelarik.

1928-ko udal-hauteskundeetan, abertzaleek Borms «traidorea» aurkeztu zuten Antwerpen-en (hau Leuven-go gartzelan 1918-z geroztik preso zegoen mementuan); eta, hura eskandaloa: 83.048 boto bildu zituen, eta hautaturik atera!

«83.000 irain Belgikari», erantzun zuten ultra-belgikarrek. Baina datua hor zegoen: «germanofilo nazkagari» haiek, oinarri soziologiko tinkoa zuten Flandreetan. Hau arazo politiko larria zen; eta zerbait egin behar zen, eta berehala. 1932-an Estatuaren egitura aldatu zen.

Eta 1930-an, irakats-hizkuntza **bakartzat** nederlandera onarturik, Gent-eko flandretar Unibertsitatea zabaldu zen. 1935-an gai teknikoetan ere frantsesa abandonatu zen. Partida irabazita zegoen. Borrokak 46 urte eramane zituen.



Gent, flandretar abertzaletasunaren sorterrria.

artxiboa

Gaur Gent-eko Unibertsitatea inportanteenetakoa da, ondoko taula honetan (1974-koa) ikus daitekeenez: Flandreak:

**Gent**, 11.053 ikasle, nederlanderaz

**Leuven**, 16.052 ikasle, nederlanderaz

**Antwerpen**, 4.700 ikasle, nederlanderaz

Wallonia:

**Liège**, 7.775 ikasle, frantsesez

**Mons**, 1.739 ikasle, frantsesez  
**Louvain-la-Neuve**, 12.612 ikasle, frantsesez.

Bruselaldea: (Unibertsitatea bikoiztuta dago)

**Bruxelles (U.L.B.)**, 8.635 ikasle, frantsesez.

**Brussel (V.U.B.)**, 3.507 ikasle, nederlanderaz.